

Negu Gorriak

Negu Gorriak Muguruza anaiek osatu zuten. Bigarren musika taldea izan zen Kortaturen ondoren. 1990ean sortu zuten taldea eta 2001ean desagertu zen.

Taldean Fermin Muguruza, Iñigo Muguruza, Kaki Arkarazo, Mikel Kazalis eta Mikel Abrego zeuden. Fermin Muguruza kantaria zen. Iñigo Muguruzak eta Kaki Arkarazok gitarra jotzen zuten. Mikel Kazalisek baxua jotzen zuen eta Mikel Abregok bateria jotzen zuen.

Disko hauek atera zituzten: Hator Hator, Negu Gorriak, Gora Herria, Gure Jarrera, Tour 91+1 eta Borreroak Baditu Milaka Aurpegi.

Kanta ospetsu hauek atera zituzten: Radio Rahim, Gora Herria, Lehendabiziko Bala, Kolore Bizia, Esan Ozenki...

Hemen duzue Negu Gorriak taldearen kanta bat:

RADIO RAHIM

<https://www.youtube.com/watch?v=Gdy1Y1s-0Jo>

Ikusita neuzkan

Amodioa eta gorrotoa

Hatz koskoetan

Tatuaturik.

Baina ukabilka

Ibiltzeko

Hatzak jantzi

Behar dituzu.

Eta batzutan

Amodioarekin

Bestetan aldiz

Gorrotoarekin.

Eta batzutan

Amodioarekin

Bestetan aldiz

Gorrotoarekin.

Horrelakoa da bizitza

Egin ezazu behar duzuna

Bat-bi, bat-bi

Horixe da

Gustatzen zaidan

Mugimendua

Rap-arekin

Dantza orduko

Rosie perez

Ikusi ezkerro

Mike Tyson k.o.

Utzi zuela

Jakiteak

Ez zaitu harrituko

Bat-bi, bat-bi

Rap-arekin

Gustatzen zaidan

Mugimenduarekin

Horrelakoa da bizitza

Egin ezazu behar duzuna

Irratizarrean

Errepresioaren kontra

Zinta bakarrak

Oihukatzen du

Poliziek

Radio rahim

Hil dutenean

Zabaldu auzoan

Ezagutarazi

Berri txarra

Radio rahim

Hil dutela

Eta pizzeriako

Kiskalitako hormetan

Martin eta malcolm

Azalduko dira.

Horrelakoa da bizitza
Egin ezazu behar duzuna
Eta batzutan amodioarekin
Bestetan aldiz gorrotoarekin
Eta batzutan amodioarekin
Bestetan aldiz gorrotoarekin
Horrelakoa da bizitza
Egin ezazu behar duzuna

Egileak: Joseba Etxaniz eta Xabat Maritxalar.